

## *BAT-BATEKO TALDEAK*

---

Bat-bateko taldeak hezkuntza arautua eta bertso eskolaren arteko zubia dira. Taldeon helburu nagusia ikasgelan bertsozaletu diren gaztetxoak bertsoaren lanketari jarraipena eman ahal izatea da. Horretarako, talde txikiak osatzen dira ikastetxe edota herri mailan, bertsolaritza irakaslearen laguntzaz, hezkuntza arautuko ordutegiz kanpo, bertsolaritza lantzen jarraitzeko.

Kopuruz talde txikiak dira (biziki zaletu diren ikasleak elkartzen baitira), eta horrek harreman pertsonalagoa eskaintzeko aukera ematen du. Gainera, kualitatiboki betetzen duten funtzioa garrantzitsua da oso: ikasleen euskararekiko atxikimendua sendotzen da, ahozkotasunean eta jendurrekotasunean sakontzeko aukera ematen zaie; eta ikastetxean euskara espazio informaletara zabaltzen eragiten du.

### *INFORMAZIO GEHIAGO*

Bizkaiko Bertsozale Elkartea

Zabale kalea 9, atzea

48200 Durango

Tel: 946812711

E-posta: [bizkaia.administrazioa@bertsozale.eus](mailto:bizkaia.administrazioa@bertsozale.eus)